

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 167.493 euroren diru-laguntza eman du Ezkabarteko eta Olaibarko kontsultategi berrirako

Vera kontseilariak Arre herrian dagoen zentroko instalazioak ireki ditu gaur

Viernes, 23 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak Ezkabarte eta Olaibar ibarretako kontsultategi berria eraikitzeke obretarako 167.492 euroren diru-laguntza eman du. Kontsultategia Arre herrian dago. Marta Vera Janín Osasun kontseilariak instalazio berriak ireki ditu gaur Angel Sanz Osasunbideko zuzendari kudeatzaileak, Cristina Ibarrola departamentuko zuzendari nagusiak, Ignacio Yurrs Lehen Mailako Arretako zuzendariak eta Osasunbideko beste kide batzuek lagunduta. Han izan dira, halaber, Ezkabarte ibarreko udal ordezkariak, Pedro Lezáun alkatea buru izan dutela.

Kontsultategia Ezkabarteko Udalaren lokalak birmoldatu eta berritzeko obren emaitza da, eta herritarren beharrezanean erantzuteko txiki geratu zen aurrekoa ordezkatzeko. Zentroak 174 metro koadroko azalera hartzen du eta honela dago banatuta:

-Lau kontsulta: medikuntza orokorra, erizaintza, erabilera anitzekoa eta larrialdietakoa.

-Administraziorako gunea (harrera)

-Itxarongela

-Komunak

-Biltegia

Diru-laguntzen bidez jasotako 167.493 euroko zenbatekotik 142.492 euro obren proiektua egin eta burutzeko erabili dira, 19.802 euro oro har ekipoz hornitzeko, 4.281 euro medikuen altzarietarako eta 918 euro seinaleetarako.

Zentro berria Atarrabiako Oinarrizko Osasun Barrutira dago atxikita eta 956 osasun txartel ditu esleituta Arre, Zildotz, Azotz, Eusa, Makirriain, Orikain, Orrio eta Sorarengo (Ezkabarte) eta Enderitz, Olaitz, Olabe eta Otsakaingo (Olaibar) biztanleen artean. Langileak Maite Gómara mediku orokorra, Elena Gorena erizaina eta Miriam Nagore administraria dira.